

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO KIROL PORTUAK ERAKUNDEAREN 2020KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen joan den maiatzaren 26an Euskadiko Kirol Portuak (EKP) zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren kudeaketa ekonomikoaren eta finantzarioaren fiskalizazio txostena.

Epaitegiak **aldeko iritzia** eman du **urteko kontuei** buruz, baina adierazi du EKPk ez duela EAEko Administrazio Orokorretik jasotako ondasun eta eskubideen zerrenda baloraturik.

EKPk **zuzentasunez** bete du 2020an bere jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen **lege-araudia**, salbuespen izan delarik lau zerbitzuren edo horniduraren kontratazioa, horiek ez baitira izapidetu dagokion kontratazio-prozedura baliatuta.